



ehunekoak



Honako hauetatik, zein aukera dira egokiak?

1.a.) %85

1.b.) % 85

2.a.) EAEko biztanleriaren % 68a abstemia da lanegunetan.

2.b.) EAEko biztanleriaren % 68 abstemia da lanegunetan.

3.a.) Ikasleen % 75ak gainditu du azterketa.

3.b.) Ikasleen % 75ek gainditu du azterketa.

4.a.) Elkarrizketatuen % 51,75ek aldeko jarrera du.

4.b.) Elkarrizketatuen % 51,75ek aldeko jarrera dute.



Nola idatzi behar dira
ehunekoak? Nola
deklinatu? Nola egiten du
ehunekoak
komunztadura?

*Ortotipografia liburutik hartu
ditugu gomendiook* (Joxe Ramon
ZUBIMENDI, 2004: 45-46).
*Euskaltzaindiaren oniritzia du lan
horrek. Adibideak, hala ere, guk
egokitutakoak dira.*





1. Ehunekoa digitoz idazten da, % sinboloaren eskuin aldean kopuru zehatza emanaz eta bien artean hutsune bat utziz:

% 7

% 15,25



2. % sinboloaren euskal izena *ehuneko* da. Hortaz, *ehunetik*, *ehunetarik* eta gisako hitzak letraz letra baizik ezin dira idatzi; ez baita kasu bera.



3. Ehunekoa deklinatzeko, % sinboloaren eskuinean digitoz adierazitako zenbakia deklinatu behar da, kasuan kasuko atzizkia erantsiz marratxorik gabe.

- **Aurrezki Kutxak % 13ko hazkundera izango du eta kreditu-inbertsioa % 12 haziko da.**



4. Ehunekoa zenbat hitzaren ereduan deklinatzen da eta, beraz, mugagabeen jokutzen da;...

- Deitutakoen % **10** etorri zen batzarrera.
 - *Deitutakoen % **10a** etorri zen batzarrera.
- Telebista kateen % **25** euskaraz zen orduan.
 - *Telebista kateen % **25a** euskaraz zen orduan.
- Inkestaturen % **7k** uste du beharrezkoa dela.
 - *Inkestaturen % **7ak** uste du beharrezkoa dela.
- Langileen % **10ek** istripuren bat izan du inoiz.
 - *Langileen % **10ak** istripuren bat izan du inoiz.



4. (jarraipena) ...; salbu-eta, aurretik emandako ehuneko kopuru(ar)en osagarri delako, mugatu singularrean jokatzen den kasuan.

Esaterako, aurretik *gainerako* edo *beste* badute:

- Gastuen % 89 udalena da; % 8, mankomunitateena eta **gainerako % 3a**, kontzejuen.
- Auzokoen % 25 alde dago, eta **beste % 75a** aurka.



5. Ehunekoak singularrean egiten du aditzaren komunztadura.

- Bazkideen % 25,35 ados dago.
- Langileen % 17k baiezkoa eman du.

Oharra: testuinguru bereziren batean, pluraleko erreferenteak berera ekar dezake komunztadura.

- Zuetariko % 45ek bikain egin du/duzue.



6. Ehunekoa dagokion hitzaren ondoren idatzi behar da % sinboloa.

- Botoen % 48 lortu du hautagaiak.
(Eta ez: **% 48 boto lortu du hautagaiak**)

•Baina zuzenak dira honelakoak:

- Ehunetik (ehunetarik) 48 boto lortu ditu.
- % 2,2 igo da KPIa.
- % 4,8 hazi da BPGa.-



Urdinez markatu ditugu aukera egokiak; gorriz, aukera desegokiak.

1.a.) %85

1.b.) % 85

2.a.) Biztanleriaren % 68a abstemia da lanegunetan.

2.b.) Biztanleriaren % 68 abstemia da lanegunetan.

3.a.) Ikasleen % 75ak gainditu du azterketa.

3.b.) Ikasleen % 75ek gainditu du azterketa.

4.a.) Hiritarren % 51,75ek aldeko jarrera dute.

4.b.) Hiritarren % 51,75ek aldeko jarrera du.



Tradizio luzeko beste modu batzuk ere badaude, hala ere, zatikiak adierazteko.

- **Hamarretik bederatzi** ados daude.
- **Bitik batek** uste du bere egoera ekonomikoa duela hiru urtekoa baino txarragoa dela.
- Batzorde bitarikoan, gizonezkoak dira **bostetik lau**.
- **Hirutik batek** du ura eta argindarra Chiapaseko biztanleen artean.
 - *Hirutatik batek du...